

## Altza

Larraitz Garmendia [fnoa.: 943-391267]

**E**lkarre bitxia da Lanaren Aldeko Asteartea izenekoa. Altza inguruko langabetu batzuek sortu zuten lana aurkitzeko helburuarekin. Lana aurkitzen saiatzeaz gain, Udaletxe atarian elkartzen dira asteartero 10.00etatik 11.00etara protesta egiteko. Astearte arratsaldean, 18.00etan, bere egoitzan biltzen dira. Orain arte elizaren areto bat erabili dute, baina hilaren 19an, asteartean nola ez, Larratxo pasealekuaren 22an inauguratu zuten egoitza berria.

## Lana erronka

Elkartetik berrehun bat lagun pasa diren arren, gaur egun hogeita hamar inguru elkartzen dira astero. Jabier Hernaez bikarioa ere tartean izaten da, berak ere laguntzen baitu elkartean. Hernaezek aipatu digunez, lana aurkitzeko bide asko jorratzen dituzte. "Astero INEMera joaten dira lan eskaintzen berri izateko. Udaletxera ere jotzen dute informazio bila eta baita enpresa eta industrialdeetara ere".

Bada elkartearen bitartez

lana aurkitu duena, "FCC eta mota horretako enpresek kontratatuta. Udan, esaterako, 25 bat pertsona lanean aritu ziren", diosku apaizak. Dena den, elkarteko jendearen adina ez da aproposena lana aurkitzeko. "Batez beste, berrogei bat urteko jendea da eta adin honetan aukerak urriagoak dira. Enpresek normalean, jende gaztea nahiago dute eta merkeago ateratzen zaie gainera", azaldu digu.

Altzan urte latzak bizi izan dira. Azken urteetan gauzek hobera egin dutela esan digu Hernaezek. "Lanik gabe geratu zen jende asko eraikuntzan hasi zen lanean. Etxebizitza asko eraiki dira eta jende askok horri esker


**Asteartero  
protesta egiten  
dute Udaletxe  
atarian**

## Mendi Zaleak Bizkaiara doaz

Balmaseda-Peña txangoa antolatu du Mendi Zaleakek hilaren 24rako. Goizeko 07.30etan irtengo dira Herrerako plazatik. Bidaiak 1.500 pezeta balio ditu.

## Abesbatzen hamargarren emanaldia

Hilaren 29an hasiko dira aurtengo kontzertuak. Trintxerpeko Ilunbe izango da bertako abesbatza bakarra, beste biak atzeritarrak baitira: Errusia eta Esloveniakoak hain zuzen. Emanaldiak San Martzial eta San Luis elizetan eskainiko dira.



Agazkia: Imanol Oiegi

Langabeziari aurre egiteko sortutako elkárteak egoitza estreinatuta du Larratxon. Giro jatorra izan zen bertan.

egin du aurrera".

Bada, hala ere, burua altza ezinik dabilena. Horientzat ere lagungarria izaten da elkartea, apaizaren esanetan. "Zure egoeran daudenekin egotea eta arazoaz hitz egiteak asko laguntzen du. Psikologikoki hori oso garrantzitsua da".

## Protesta ere bai

Donostiako udaletxe aurrean egoten dira pankarta batekin asteartero ordubetez. Alkate eta zinegotziekin ere elkartu izan dira eta Udalbatzan 35 lanorduen alde-

ko mozioa ere aurkeztu zuten. "Udalean langabeziari aurre egiteko batzorde bat eratzea baina oraingoz ez da ezer egin. Bestalde, Donostiatik kanpo egin diren zenbait mobilizazioetan ere parte hartu izan dute elkarteko kideek, Madrilan esaterako", adierazi digu Jabier Hernaezek.

Egoitza berriari esker maizago bildu ahal izango dira. Elkarte irekia da eta edonor joan daiteke. Parte hartu nahi izanez gero, 943 396750 telefono zenbakira deitzea besterik ez dago.

OIHALDENDA

*El telar*

Alfonso VIII, 8  
Tfnoa.: (943) 42 42 10

**HERNIES** Berriu berria!

ARROPA ETA OSAGARRIAK  
2 ESKUKO ARROPA  
KOMIKIAK, DISKOAK ETA ABAR

Fermin Calbeton 33 • PARTE ZAHARRA  
Tfnoa.: 943-420659